

2021EKO URRIAREN 6KO OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeita bateko urriaren seian.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo..

Erkuden Agirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Iñaki Zabalo Echezarreta.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Inor ez.

IDAZKARIA: Martin Iparragirre Mujika.

BATZARRA: Ohikoa **DEIALDIA:** Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko 19:20etan

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko 20:00etan.

Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

GAI ZERRENDA:

- **Aurreko bilkurako aktaren onarpena, hala badagokio: 2021eko uztailaren 28ko Ohiko Bilkurari dagokion akta.**

Aipaturiko akta aurkezten da Bilkura honetan onartzeko.

Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu da.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
 - 2021eko 30 zenbakitik 34 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira (Ebazpenen bitartez onartuta dauden 3.000,00 eurotik gorako fakturei dagokienez, informazio zehatza azken puntuan emango da)

- **Murgiondo baserri inguruko bidearen desafektazio espedientea behin-betiko izaeraz onartzea.**

HONAKO HAU IKUSITA:

Udal Osoko Bilkurak 2021eko uztailaren 8ko bileran hasiera onarpena eman zion Murgiondo baserri inguruko bidearen desafektazio espedienteari eta halaber Murgiondo baserri inguruan lursailen trukaketa egiteko kontratua onartu zuen, bestek beste, honako baldintza honekin: **“Mutiloako Udalak interesatuei adierezpeneko laugarren artikuluko 2 zenbakidun planoan deskribatutako bide publikoaren zatiaren jabetza pasatzeko behar diren pausoak emateko konpromisoa hartzen du, bestek beste, lehenbailehen 1372/1986 Toki Entitateko Ondasunen erregulamenduaren 6. artikuluan aurreikusitako desafektazio prozedura gauzatzen hasiko da. Behin eta espedientea bukatzen denean eta bide berriaren egokitze lanak amaituta daudenean, trukaketa behin-betiko gauzatuta geratuko da”.**

KONTUAN HARTUTA:

Jendaurreko epealdian, eta iragarkia 2021-08-16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Udal iragarki tauletan argitaratu ondoren, ez dela inongo alegaziorik aurkeztu.

Hori dena kontuan hartuta, Udal Osoko Bilkurak apirilaren 2ko 7/85 Legeko 47 artikulua ezartzen duen korporaziokideen gehiengo osoaren aldeko botuekin,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Murgiondo baserri inguruko bidearen desafektazio espedientea behinbetiko izaeraz onartzea, eta honekin desafektazio espedientea bukatutzat ematea.

BIGARRENA:

Konstaraztea espedientea bukatzeko, oraindik bide berriaren egokitze lanak pendiente jarraitzen dutela.

- **Mutiloa Bildua 3.1 eskubiko udal jabariko etxebizitza alokatzeko hartutako erabakia berrestea.**

Udal Osoko Bilkurak berretsi du Mutiloa Bildua 3.1 eskubiko udal jabariko etxebizitza alokatzeko hartutako erabakia 2021-09-21eko 32-2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez. Honako hau da sinatutako kontratuaren edukia:

BILDURIK:

Alde batetik, Iñaki Ugalde Alustiza jauna, Mutiloako alkatea dena eta udalaren izenean arituz, ekitaldi honetarako behar bezala ahalmenduta dagoena.

Bestetik, Javier Alustiza Urkiola, 72.468.981Y NAN zenbakiduna eta Aintziñe Egea Gonzalez 72.462.276V NAN zenbakiduna, helbidea Mutiloako Murgiondo baserrian dutenak, eta aurrerantzean errentariak.

Ekitaldi honetan parte hartzen duten bi alderdiek kontratu hau sinatzeko legezko ahalmena onartzen diote elkarri eta horretarako ondorengoa,

ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa: Mutiloako Udala, Mutiloa Bildua-3, 1. eskubian kokatuta dagoen etxebizitzaren jabea da, etxebizitza altzariaz hornituta dago, eta honekin batera atxikitzen da 1 eranskin bezala argazki sorta bat non bere egoera ikusten den.

Bigarrena: Errentariak Murgiondo baserria berritzen ari dira, eta obrak irauten duten bitartean bizitzeko etxebizitza bat behar dute. Behar hau ikusita eta dagokion eskaera egin ondoren, Mutiloako Udalak etxebizitza alokatzea erabaki du, eta erabaki hau berretsiko du Udal Osoko Bilkurak egiten duen hurrengo bileran.

Beraz hori dena kontuan hartuta, alderdiek honako hau

HITZARTU DUTE:

Lehenengoa: Xedea:

Kontratu honen xedea, Mutiloako Udalaren jabariko Mutiloa-Bildua 3-1 eskubiko etxebizitzaren errentamenduaren baldintzak ezartzea da.

Bigarrena: Kontratuaren iraupena:

Kontratuaren iraupena 2022ko urtarrilaren 31era arte izango da, hau da Murgiondo baserriko berritze lanak data horretarako amaituta egongo direla aurreikusten delako.

Hirugarrena: Kanona.

Errentamenduaren kanona bezala, hileko 350,00 euro ezartzen da, eta ordainketak Udalaren kontu korrontean egingo dira, hil bakoitzaren bukaeran eta lehenengo 5 eguneko epean.

Laugarrena: Mantenu gastuak:

Errentarien kontura izango dira mantenu eta edozein motako azpiegitura gastuak (ura, argindarra, telefonoa eta antzekoak).

Bosgarrena: Etxebizitzaren Itzulketa:

Kontratua amaitzen denean, etxebizitza Mutiloako Udalari itzuliko zaio, gutxienez jasotako egoera berdinean.

Seigarrena: Ordainketa eza:

Kontratuaren iraupenaren bitartean, ordainketa ezaren aurrean, Mutiloako Udalak bere aldetik bertan behera utzi ahal izango du kontratua.

Eta hemen jasotakoarekin bat datozela ikusirik, kontratuaren bina ale sinatzen dituzte, ondorio bakar baterako, goian adierazitako leku eta egunean.

Udala

Errentariak

Sinatuta: Iñaki Ugalde Alustiza

Sinatuta: Javier Alustiza eta
Aintziñe Ejea

- **Hainbat kontratu txiki motako esleipenak onartzea.**

Kontuan hartuta, 2021eko aurrekontuan badagoela nahiko kreditua gastu hauei aurre egiteko eta Kontratu Txikia sailkapenean sartzen direla Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera, aho batez kontratu txiki motako esleipen hauek onartu dira:

Lana: Haurreskolako zorua aldatzea

Esleipenduna: Tapicerias Biok S.L.; onartutako aurrekontua: 12.653,50 euro (BEZ aparte).

Lana: Mendi publikoan Aizpuru bidean egokitzapen lanak egitea.

Esleipenduna: Jaime Orbegozo Hondalanak S.L: onartutako aurrekontua: 7.756,00 euro (BEZ aparte).

Lana: Errotatxoko aldaperoa hustu eta konponketa lanak.

Esleipenduna: Canterias Donosti; onartutako aurrekontua 22.200,00 euro (BEZ aparte).

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Honako hau da aurkeztu den zerrenda, argitu da presa kontua dela eta, batzuk Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez bideratu ondoren dagoeneko ordainduta daudela:

33/2021 ALKATETZAREN EBAZPENAREN BITARTEZ ONARTUTA:	
ECOINGENIA (Mercedes Valenzuela Garcia)	8.450,18

- **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.

LEHENA:

Murgiondo baserri inguruko bidearen desafektazio espedientea behinbetiko izaeraz onartzea, eta honekin desafektazio espedientea bukatutzat ematea.

BIGARRENA:

Konstaraztea espedientea bukatzeko, oraindik bide berriaren egokitze lanak pendiente jarraitzen dutela.

Mutiloa, 2021eko urriaren 6a

O.E.
ALKATEA

Javier Alustiza/Aintziñe Egea
Murgiondo baserria
20214.- Mutiloa

